

Zerrenda bozkatuenean ez, koherentzian dago gakoa

ZERRENDA bozkatuenean argudioa kontuan hartzekoa da gobernuak osatzerakotan, zalantzarik gabe; besteak beste, gehiengo garrantzitsu batek zer uste duen kontuan hartzea beti izan behar duelako pisuzkoa demokrazian. Garrantzitsua bai, baina ez da erabakigarriena, beste gehiengo batek zerrenda bozkatuena garaitzen badu, zilegi da eta kito. Aspergarria eta zentzu bakoa da hauteskunde hauteskunde bizi behar izaten dugun zerrenda bozkatuenean eztabaida.

Ez da kontua zerrenda bozkatuena bai-ez, mamia edukietan eta gardentasunean dago. Zilegi litzateke Gipuzkoan EAJK PSE eta PPrekin gobernatzea, baina ez koherentea, ez delako hori izan herritarrei kanpainan saldu diena –gutziz kontrakoa, “batu gaitezen haien aurka”–. Hiru indar horiek ados daude hainbat proiektutan: Pasaiaiko kanpo portua, erraustegia, AHT... eta horrek akaso justifikatuko luke batzea. Baina EAJK badaki herri proiektu bat hiruzpalau azpiegitura baino askoz garrantzitsuagoa dela: demokraziaren oinarri den erabaki eskubidea, euskara eta euskal kulturaren garapen serio eta sistematikoa, zentzuzko bake prozesu bat... eta gai horietan, oro har, herritar jeltzaleak gertuago daude Bilduzaleetatik popular eta sozialistengandik baino.

Nafarroan, esaterako, erabat koherentea litzateke zerrenda bozkatuena den UPNri Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udaletan aginte makila kentzea, hori delako hain zuzen, oposizioak kanpainan zehar saltzen duen mezu nagusietakoa. Gero, aldiz, saldutako mezu horrekiko



Gipuzkoako Diputazioa.

koherente ez dena PSN da eta hala doakio. PSOEk, adibidez, nola saldu dezake koherentzia hauteskunde kanpainan krisiari aurre egiteko egin dituenak egin ondoren? Ezinezkoa da eta, ondorioz, boto emaleek zigortu egiten dute.

Hau guztia, zalantzarik gabe, brotxa lodiko irakurketa da. Baina gobernu hautaketan une hau halakoxea izaten da, erabaki potoloena; fintzearena agintzen hastean etor liteke, agintariak horretarako gaitasuna badute bederen, eta ez da ohikoena izaten. Egia esan, gure herriak bizi duen gatazka egoerak ez du brotxa finaren politika horretan laguntzen, alderdien nagusikeriak ere ez, gehiengo osoa dutenek ere adi ibili behar dute brotxa lodiekina...

BILDUN direnak badute gobernu esperientzia zabala: EAri buruz ez dago azalpen handirik eman beharrik; Alternatibako jendea ere horretan aritu izan da EBtik edo, azkenotan, bakarrik; eta ezker abertzaleak ere tradizio luzea du... udaletan. Hor dago erronka, ezker abertzaleak lehenengoz goberna ditzakeela Gipuzkoako Diputazioa eta Donostia-Udala moduko erakundeak. Eta orain artekoak egin badute, berak ere egin dezake, duda barik, baina

erronka gaitza du aurrez aurre. Aurreko guztiek gizar-te honetan asko agintzen dutenen adostasunarekin gobernatu dutelako eta Bildukoek botere faktiko eta loby zenbaiten aurka egin beharko dutelako.

Ezin zaio eskatu iraultzarik Bilduri, ezta gobernatzen duen gizarte eremua krisitik atera dezan ere, ezin du: baina bozkatu dutenek beste estilo bat antzeman beharko

lukete behintzat. Adibidez, gobernatzen dituen instituzioak bake prozesuaren zerbitzura ekarriz. Gure etxea den Lurrarekiko beste begirune bat erakutsiz, desaroilismoari galga jarriz; krisiarekiko borrokan, gutxien dutenak babestuz eta dagoen aberastasuna hobeto banatzearen irizpidea lehenetsiz. Ulertuz proiektu txiki eta ertaintetatik bultzatzen dela nagusiki gizartea, bai ekonomi eremuan eta baita kulturaren ere.

Eta guztia gardentasunetik. Gertuko adibide batekin azalduko dut azken puntu hau. Duela hilabete batzuk euskarazko hedabide ez publikoen sektoreak zera galdetu die –galdera parlamentarioen bidez– gure herriko instituzio nagusieni (Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta hiru diputazioak): “Zenbat diru gastatu duzue publizitatean 2008, 2009 eta 2010ean eta zein mediotan jarri da publizitate hori?”. Gobernu bakar batek ere ez dio erantzun gure eskaera zehatzari txukun eta batzuk erantzun ere ez dute egin; eskatutakoari gehien hurbildu dena Nafarroako Gobernua izan da, 2010eko datuak eskainiz (publikoak dira Interneten). Zein da datu horiek eskuratzeko arazoa? Zerbatu gorde nahi da? Ez dago dena erakutsi beharrik, baina eskatutakoan argi erakustea ezinbestekoa da.